



Esp. kodea: 2014SMOZ0016

Gaia: Adierazpen Instituzionala, Gaza eta Israeleko egoera larriari buruzkoa

## ADIERAZPEN INSTITUZIONALA / DECLARACIÓN INSTITUCIONAL

### ARRASATEKO UDALA

BILDU, EAJ-PNV, PSE-EE eta ARALAR udal taldeetako bozaramaileek, 2014ko uztailaren 17an, honako adierazpen instituzionala onartzea erabaki dute:

#### **GAZAN ETA ISRAELEN INDARKERIAK GORA EGIN DUELA- ETA**

Palestinako Gaza eskualdeari eta Israelgo Estatuari eragiten dien indarkeriak gora egin duela-eta, tartean biktima, zibil eta militar ugariren ondorio mingarriekin, eta okerrera egin duenez azken asteotan, udal honek,

**Lehenengo.-** Israelek Gazako zerrendan egin dituen aireko erasoak berehala gelditzeko eskatzen du, bai eta Hamas-en aldetik koheteak jaurtikitzeari uzteko ere, Nazio Batuetako Segurtasun Kontseiluak adierazitako errekerimenduetarekin bat, pertsonen bizitza gehiago ez galtzeko, izan ere, sufrimendua eta gorrotoa handitzen ditu horrek eta zaildu egiten du konponbide baketsu bat bilatzea eskualde liskartsu horretan.

**Bigarren.-** Nazioarteko Komunitateari eskatzen dio, bereziki Nazio Batuei, Liga Arabiarreko eta Europar Batasuneko herrialdeei, populazio zibila babesteko behar diren neurriak eta legezko bideak hartu ditzaten eta dagozkion ekimenak egin ditzaten, elkarri egindako erasoak etete aldera eta Gazan izan litekeen lur eraso militarra gelditze aldera, liskarrean dauden aldeak lotuko dituen su eten iraunkor bat hitzartu dezaten.

### AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Los portavoces de los grupos municipales de BILDU, EAJ-PNV, PSE-EE y ARALAR, con fecha 17 de julio de 2014, han acordado aprobar la siguiente declaración institucional:

#### **ANTE LA ESCALADA DE VIOLENCIA EN GAZA E ISRAEL**

Ante la escalada de violencia que afecta a la región palestina de Gaza, así como al Estado de Israel, con las dolorosas secuelas de numerosas víctimas, civiles y militares, y cuyo agravamiento se está produciendo en estas últimas semanas, este Ayuntamiento,

**Primero.-** Exige el cese inmediato de los ataques aéreos de Israel sobre la Franja de Gaza así como del lanzamiento de cohetes por parte de Hamas, en coherencia con el requerimiento expresado por el Consejo de Seguridad de las Naciones Unidas, en orden a evitar la pérdida de más vidas humanas que incrementan el caudal de sufrimiento y odio y alejan la búsqueda de una pacífica solución al histórico conflicto regional.

**Segundo.-** Requiere de la Comunidad Internacional, especialmente de las Naciones Unidas, de los Países de la Liga Árabe y de la Unión Europea, la adopción de las medidas y mecanismos legales necesarios para la protección humanitaria de la población civil y la elaboración de las iniciativas pertinentes a fin de que se suspendan los ataques mutuos y se paralice la eventual incursión militar terrestre sobre Gaza, pactándose una tregua permanente que vincule a las partes en conflicto.



Esp. kodea: 2014SMOZ0016

**Gaia:** Adierazpen Instituzionala, Gaza eta Israeleko egoera larriari buruzkoa

**Hirugarren.-** Borrokak alde batera utzi eta su etena iragarri eta gero, palestinar-israeldarren arteko elkarrizketa berriro hastearen alde agertzen da udala, nazioarteak behar bezala lagunduta, eskualdean bake eta egonkortasun eszenatoki bat eraikitze aldera, izan ere, sinetsita gaude gatazkaren konponbidea modu baketsuan erabaki behar dela, zuzenean alde biek negoziatuz, interbentzio militar oro erabat bazterturik.

**Laugarren.-** Adierazten du Palestinako hainbat erakundek sustatutako batasun nazionaleko gobernu kontsideratu behar dela aukera bat eta urrats bat norabide egokian, eta ez ikusi mehatxu bat moduan, izan ere, herri palestinar herriaren ahots bateratuak erraztu egiten du edozein konponbide.

Eskualde horretan sufrimendu itzela eta etengabeko ezegonkortasuna sortzen dituen gatazka honen konponbidea hemendik bakarrik etorri daiteke, elkarrizketa eta negoziazio inklusiboko prozesu batetik, Estatu Palestinar bideragarri bat aintzatetsiko duena, Nazio Batuek errekonozitutako mugekin.

**Tercero.-** Aboga, tras el cese de las hostilidades y el anuncio de alto el fuego, por el reinicio del diálogo palestino-israelí, con el adecuado soporte y apoyo internacional, en aras de la construcción de un escenario de paz y estabilidad en la región, atendida nuestra convicción de que la solución del conflicto debe resolverse de manera pacífica mediante la negociación directa entre ambas partes, excluyendo absolutamente todo tipo de intervención militar.

**Cuarto.-** Manifiesta que el Gobierno de unidad nacional promovido por las diversas formaciones palestinas, lejos de verse como una amenaza, debe considerarse como una oportunidad y un paso en la buena dirección, dado que la voz unitaria del pueblo palestino facilita cualquier solución.

Solo un proceso de diálogo y negociación inclusivo, que lleve a cabo el reconocimiento de un Estado Palestino viable, con las fronteras reconocidas por Naciones Unidas, puede dar solución a este conflicto, causante de un enorme sufrimiento y de una permanente inestabilidad en la región